



TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

AZTERTUTAKO TRAMITEA:

2024ko Aurrekontuaren likidazioa

1/2013 Foru Arauak bi entitate desberdin bereizten ditu:

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak).

Administrazio izaera duten entitateak, dirusarrera komertzialekin finantziatutakoak ez diren zerbitzuak eman edo ondasunak ekoizten dituztenak dira.

2025eko urtarrilean, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak (IGAE) Tolosaldea Garatzen S.A. sozietatea Administrazio Publikoen atalaren barruan sailkatu du.

Sozietatea osatzen duten udalerrien artean Tolosako Udalak du partaidetza handiena, eta horregatik, kontabilitate nazionalean, Tolosako Udalaren unitate publikotzat jotzen da.

Hori dela eta, izaera administratiboa duten entitateen zerrenda honela geratu da:



Entitate zerrenda:

- 1.- Tolosako Udala
- 2.- Tolosaldea Garatzen S.A.

Entitate hauen kasuan, helburuak betetzen diren egiaztatu beharko da kontuak bateratu ondoren eta finantzaketa ahalmenaren ikuspuntutik, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europearrean jasotako definizioari jarraituz. Horretarako, aldez aurretik, sozietatearen gastuen eta sarreraren egitura toki-erakundearen aurrekontu-egiturara egokitu da. Txosten honen eranskin gisa, egituraren egokitzapena, aurrekontu bateratua eta bi entitateen arteko barne eragiketak erantsi dira.

HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate hauen ahalmena / premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izan da 2024. urtean:

Superabita:	1.231.874,98
DGarekin finantzatutako defizita:	0,00

Kalkulua egiteko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziari Tolosako Udalari dagozkion ondorengo SEC doikuntzak aplikatu dira:

SEC ajustearak

1.-Kutxa-irizpidea zerga-izaerako sarreretan	-24.312,03
Diru-sarreraren bilketaren doikuntzak, 1. kapitulua	119.332,32
Diru-sarreraren bilketaren doikuntzak, 2. kapitulua	-26.063,00
Diru-sarreraren bilketaren doikuntzak, 3. kapitulua	-117.581,35
2.-Eskuratzeak ordainketa geroratuarekin	550.000,00



3.-Irabazi arruntetatik ez datozen dibidenduen banaketa	-187.380,00
CIDE, borondatezko erreserben kontura	-103.380,00
Tolosa Gasa S.A., borondatezko erreserben kontura	-84.000,00
Guztira ajustearak	338.307,97

Ondorengo taulan jasotzen dira finantza ahalmena / premiaren kalkuluak:

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	34.215.050,24
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	33.321.483,23
SEC doikuntzak	338.307,97
Finantzaketa ahalmena / premia	1.231.874,98
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	2.976.987,03
DGak finantzatutako defizita:	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia, plana egiteko obligazioaren ondorioetarako	1.231.874,98

2024. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, administrazio izaera duten entitateek betetzen dute aurrekontu egonkortasunaren 2024. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2023ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2024an likidatutako sarrera arrunten %1,87 da, ondorengo datu hauen arabera:

Epe luzeko zor bizia 2023-12-31n:	1.316.761,32
Mailegu berriak 2024an	0,00
Amortizazioak 2024an	679.499,44
Epe laburreko zor bizia 2024-12-31n	2.407,14
Zor bizia 2024-12-31n:	639.669,02
2024ko eskubide likidatuak eragiketa arruntetan:	34.176.633,42
Zor biziaren %	%1,87



Kalkulua egiteko, 2024ko abenduaren 31ko zor bizia erabili da, indarrean ziren eragiketa guztiak hartu dira kontutan, abaletatik eratorritako arriskua barne.

2024. urterako ezarritako helburua zor bizia %70 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, entitate hauek betetzen dute finantza iraunkortasunaren 2024. urterako helburua.

Gastuaren araua

2024. urtean gastuaren muga eta gastu konputagarria honako hauek izan dira:

Gastu konputagarria:	29.479.045,84
Gastuaren muga:	30.684.234,23
Diferentzia:	-1.205.188,39

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	2024	2023
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	33.321.483,23	32.746.434,32
Zorraren interesak:	42.934,20	54.540,81
SEC doikuntzak:	-550.000,00	1.185.388,95
A.P-en ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	3.249.503,19	3.970.621,42
Gastu konputagarria:	29.479.045,84	29.906.661,04
BPGaren hazkundearen erreferentzia tasa: %2,6	777.573,19	
Arau aldaketen eragina:	0,00	
Gastuaren muga:	30.684.234,23	
Gastu konputagarria - Gastuaren muga:	-1.205.188,39	

Kalkuluak egiteko Tolosako Udalaren gastuetan aplikatu diren SEC doikuntzak hauek izan dira:

Ajusteak

Eskuratzeak ordainketa geroratuarekin	-550.000,00
<u>Guztira ajusteak</u>	<u>-550.000,00</u>

Hori dela eta, entitate hauek betetzen dute 2024. urterako gastuaren araua.

ONDORIOAK

Hasieran zerrendatutako entitateek, kontuak bateratu ondoren, bete egiten dute aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2024. urterako ezarritako helburuak eta gastu araua. Beraz, plan ekonomiko finantzarioa egiteko obligaziorik ez dago.

2.- FORU ARAUAREN 1.2.b) ARTIKULUKO ENTITATEAK.

Entitate hauek merkatura bideratutakoak dira, hau da, dirusarrera komertzialekin finantziatutakoak diren zerbitzuak eman edo ondasunak ekoizten dituztenak.

Kasu honetan daude udalaren sozietate hauen aurrekontuak:

- Tolargi S.L.
- Tolosa Gasa S.A.

Aurrekontu egonkortasunari dagokionez, 2024ko ekitaldirako sozietate hauek bete beharreko helburua da oreka finantzarioa izatea. Ondorio horretarako, oreka finantzariotzat ulertuko da galerarik ez izatea, entitate bakoitzari aplikagarria zaion kontabilitate planaren arabera.



2.1- Tolargi S.L.

Tolargi S.L-k 356.041,41 euroko irabaziak izan ditu 2024an. Beraz, egoera oreka finantzariokoa da.

2.2- Tolosa Gasa S.A.

Tolosa Gasa S.A-k 217.205,80 euroko irabaziak ditu 2024an. Beraz, egoera oreka finantzariokoa da.

ONDORIOAK

Entitate hauek ez dituzte neurri berezirik hartu behar.

Kontuhartzaile akzidentala